

KOBRA, DEKTIBE TALDEA

Unaia Murua
Urretxu, 13 urte

Egunero bezala, bost neska-mutilak, eskolatik irten berriak, beraien gordelekura abiatu ziren maskota gosetia elikatzerara. Gordelekua txikia zen, baina ni hitzegiten ari naizen bost heroientzako nahiko leku zuen. Seguruenik entzunda egongo zara gaztetxo hauetaz. Buruzagia Bartolome zen, bere betaurreko handiekin eta ile puntadun motzarekin. Horrez gain bonbila bat baino argiagoa zen. Kukok aurpegi zabal xamarra du eta ile horixka. Bista bikaina du eta askotan balio izan dio taldeari. Otildo bere gorputz gihartsuaz, bakarrik pentsatzen egoten zen eta gauza pisudunak jasotzeko garaian prest egon ohi zen. Anastasia zen denetatik beti alai zegoena eta asko maite du bere ile trentzaduna. Azkenik taldeko maskota gosetia falta zaigu. Rigodon, nor bestela! Baratxuria baino finagoa du usaimena eta parean harrapatzen duen guztia jaten du.

PRESOAREN IHESALDIA

1. Ondo ateratako argazkia

– Ondo pasa itzazue oporrak! -esan zien andereñoak gelakide guztiei.

Eta horrela hasi ziren “Kobra” detektibe taldearen abenturak.

– Joango al gara gordelekura, denborapasa? -galdetu zuen Anastasiak.

Kukok, Bartolomek eta Otildok baiezkoa eman eta abiadan abiatu ziren. Minutu batzuk igaro ondoren gordelekura iritsi eta bakoitza bere leku gustokoenean eseri eta aldizkariak edo egunkariak irakurtzen hasi ziren. Taldea lasai egon ohi zen irakurtzen, dena isil-isilik baitzegoen. Denbora pasa ondoren, zera esan zuen Otildok harriturik. –Aizue! Hau ez al da geure herritik bi kilometrotara dagoen kartzela famatua? Denak Otildoren inguruan jarri ziren baiezkoa esanez. –Ba, berri txarrak daukat, -esan zuen. Ihesaldi bat egon omen da bart gauean eta ertzainek ez dute arrastorik aurkitu. Kukok ez zuen begirik kentzen argazkitik eta hunkiturik zera esan zuen. –Bai badago presoaren arrastoa!

Zein zen arrastoa?

2. Gordeleku misterioitsua

Haizea baino azkarrago abiatu ziren eta iritsi bezain pronto Rigodon zaunkaka zegoen zuhaitzari begiratu. Bai, oraindik han zegoen ihes egin zuen gizonari eroritako mezua. Kuko korrika joan zen eta mezuak erdialdean zuen lazoa kendu zion. Detektibe taldea lurrean eseri zen kukok zer esaten zuen entzunez. Irakurtzen ari zen bitartean txori pioak entzuten ziren eta udaberriko lore usaina zegoen. Geroxeago zera esan zuen Anastasiak, –Hau da zortea duguna, presoaren ezkutatu behar

den lekuaren planua izatea. Taldea gertuen zegoen errepidera gerturatu eta auto-stop egiten hasi ziren. Beraien atzean erreka bat zegoen eta oso usain txarra botatzen zuen. Geroxeago furgoi bat gelditu zitzairen eta pentsatu gabe barrura sartu ziren. Gidaria telebista konpontzailea zen eta eza-gutuak zituen kobra taldekoak. Bost minutu pasa eta gero planuko gaztelu berera iritsi eta pareko harresiari begira geratu ziren. Harresiaren goiko aldean arantza zorrotz batzuk zeuden kokaturik eta ezinezkoa zen beraientzat alde batetik-bestera pasatzea. Baina bat-batean Bartolomek hunkiturik haxe esan zuen, -hor, hor dago gure irtenbidea!

Zein da Bartolomek esaten zuen irtenbidea?

3. Arrasto bikaina

Bartolomeren abisua entzun orduko, berarengana abiatu eta irtenbidea non zegoen galdetu zioten. Bartolomek irribartsu haxe esan zuen, -ikus ten duzuen harri horren ondoan. Otildok ez zuen ezertxo ere ikusi eta ea txoratuta zegoen galdetu zion Bartolomeri. -Eta zer da, ba, hor lurrean dagoen ate manilar hori? -esan zion Anastasiak.

Kuko abiadan joan zen eta manillarretik heldu eta gorantz egin zuen indar handiarekin eta ate arraro bat irekitzea lortu zuen. Ate parera gerturatu ziren eta eskailera ilun eta luzeak ikusi zituzten. Bartolomek bere linterna txiki eta marraduna atera zuen eta beheeraka jaisten hasi ziren. Dendena hain zegoen iluna, linternarekin ikustea kos-

tatzen zitzaieela. Saguzarren hotsak entzuten ziren eta hezetasun usaina zegoen. Azkenean beheraino iritsi ziren eta paretetan zuzi batzuk zintzilik zedula konturatu ziren eta linterna alde batera utzi eta aurrera jarraitu zuten. Paretak bukaezina ematen zuen eta gainera harri bloke handiz egina zegoen. Anastasiari lokarria askatu zitzaion eta deskuiduan gauza ezagun bat ikusi zuen eta lagunei deitu zien.

Zer zen Anastasiak ikusitako gauza ezaguna?

4. Antzinako altxorra

– Zer nahi duzu? -esan zion Kukok Anastasiari. Eskuinaldean dagoen zigarro hori ez al da gu aurkitzen ari garen Letagin presoarena? –Bai, gainera poltsikoan dut bere egunkariko argazkia eta zigarro marka berberarekin erretzen ikusten da, begira!

– Bai arrazoi duzu. Esan zuen Bartolomek. Aurrera jarraitu zuten eta denbora gutxira beste metalezko ate bat aurkitu zuten. Bultzatzen hasi ziren irekitzeko asmoz, baina ezin izan zuten ireki. Otildok bat-batean ukabilkada gogor batez atea bota zuen. Lau gazteak ahozabalik geratu ziren, begien aurrean zeukaten logela handi eta baliotsua ikustean. Barrura sartu ziren eta dena miatu zuten: ohe ondoko armairua, pote eta lorantziak, mesilako kajoi guztiak... –Baina Kukok armairuren atzekaldean argi izpi bat ikusi zuen eta besteei laguntza eskatu zien tokiz aldatzeko. Lekuz aldatu eta gero

isil-isilik zulo ondora gerturatu ziren eta harriturik Letagin ikusi zuten altxor batekin. Nondik atera ote ditu horrenbeste bitxi eta urrezko txanpon?

Nondik atera zuen altxorra?

5. Zortea

– Hor!, ispiluaren eskuinaldean dagoen kaxa sekretutik. Adierazi zuen Otildok. Rigodon hain zegoen haserre, zaunkaka hasi zela, baina segituan Anastasiak ahoa itxi zion malguki batzuekin. Letagin beste logelan norbait zebilela, konturatu zen baina ezjakinarena egin zuen. Bitxi-poltsa hartu zuen eta gaztelu azpiko garajerantz joan zen. Garajea orain dela urte bat egina zegoen eta itxura on xamarra zuen. Bertan txirrinda pare bat zegoen eta automobil bat giltza zuelarik. Lehió bat ere bazegoen kotxearen ezker aldean.

Gaizkilea garajera heldutakoan kotxe barruan sartu eta abiadan joateko iritzia hartu zuen. Kobra taldekoak bertan zeuden zelatan eta Letagin irteteko zorian zegoenean, Bartolomek harri zorrotz bat bota zuen kotxearen gasolina tokira eta zulo ederra egin zion gasolina dariola utziz. Taldeko guztiek txirrinda bana hartu zuten Rigodonek izan ezik, lasterka joan baitzen. Letagin begi bistatik galdu zuten eta beranduago bidegurutze baten aurrean azaldu ziren. Eta orain zer egingo dugu?

– Lasai, badakigu hartu duen norabidea zein den. Zein zen aukeratu zuen norabidea?

6. Z. Arrastoa

Zuzen zaudete, Aresti kalerantz sartu da, lurrean utzi baitu gasolina arrastoa. Gainera ez du koteak luzaro martxan iraungo. –Jarraituko al dugu gasolina arrastoa? –Bai goazen aurrera esan zuen Anastasiak. Txirrindetako pedalei eraginez Aresti kalera jarraitu zuten. Baina bat-batean gasolina arrastoa galdu edo amaitu egin zen eta taldea kotearen bila hasi zen inguruetan. Kukok builaka, irteera gabeko kalean zegoela autoa adierazi zuen. Kotxea kale erdian zegoen kokaturik eta alboan hainbat zakarrontzi zeudenez izugarritzko kiratsa botatzen zuten. Zakarrontzi barruan, arratoi zaratak entzuten ziren. Rigodonek Letaginen usainari jarraituz, estoldetara zioan estalki bat ikusi zuen irekirik. Bartolomek bigarren aldiz atera zuen bere linternatxoa eta barrurantz sartzen joan ziren. Bera iristerakoan, uraren hotsa entzun eta ikus zitekeen. Bertan espaloi estuak zeuden errekatxoaren bi aldeetan eta ezkerreko bai eskuineko hormetan ubideak zeuden ura dariola zutela. Bakoitzak bide bat hartzeko erabakia hartu zuten Otildok arrasto berria aurkitu zuen arte.

Zein arrasto aurkitu zuen Otildok?

7. Belea kaiolara

Arrastoa uretan zegoen, Letaginek kartzelako arroparen zenbakia galdu baitzuen. Arropa zenba-

kia uretan bazegoen Letagin bertan egon beharko zen eta ez distantzia handira. Lau neska-mutilak uretara sartu ziren eta maskota ere bai, espaloia amaitu egin baitzen. Errekatxoak bukaezina ematen zuen eta ez zuten presoaren arrastorik aurkitu. Minutu batzuk igaro ondoren, Letagin ikusi zuten metro gutxira. Gaua heldua zen jadanik eta behelainoak paisaia estaltzen zuen. Azkenean estolden bukaera ikusi zuten eta bat-batean zingira sakon batean erori ziren. Letagin nora joan zen hasi ziren galdezka bata besteari. Kukok zingira ondoan zeuden txabola zaharrei begiratzen zien, horietako batek atea zabalik baitzuen. Txabolak zuen zulo batetik begiratu zuten zertan ari zen eta ezkututzen ari zela egiaztatu zuten. Baina detektibe taldea poltsa gabe zegoela ohartu zen eta txabolako leku guztiak begiratu zituzten zulotik. Anastasiak denborarik galdu gabe deitu zion Waldo inspektoreari bere mobilaz. Kobra taldea zain egon eta gero Waldo inspektorearekin elkortu zen eta Letagin non zegoen ezkutaturik esan zioten. Eta txabola barrura sartu zirenean hantxe zegoen blai eginda eta urduri. Waldok soka batez lotu zuen eta gartzelara eramane zuen. Eta han izan zen kobra detektibe taldearen azken abentura.

Non gelditu zen gazteluko altxorra?